AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

LEHENDAKARITZA

751

150/2013 DEKRETUA, otsailaren 5ekoa, Euskadiren Kolonbia, Venezuela eta Erdialdeko Amerikako ordezkaria kargutik kentzea xedatzeko dena.

Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 18. artikuluko j) idatzi-zatian, 26. artikuluko 6. paragrafoan eta 29. artikuluan ezarritakoaren arabera, Lehendakariaren proposamenez, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2013ko otsailaren 5ean egindako bilkuran proposamena aztertu eta onartu ondoren, hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Ignacio Valentín Martínez López jauna Euskadiren Kolonbia, Venezuela eta Erdialdeko Amerikako ordezkariaren kargutik kentzea, eta egindako lanagatik eskerrak ematea.

2. artikulua.– Dekretu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteizen, 2013ko otsailaren 5ean.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.